





Maite Etxaniz eta Jose Luis Elosua Tolosan izan ziren, bilerarako. I. URKIZU

## Tolosako gizarte zerbitzuak «bataz bestekoaren gaineratik» daude

Uzturre Asistentzia Zentroak Tolosari eskaintzen dion «bermea» azpimarratu du Etxanizek

**Itzea Urkizu** Tolosa

Eskualdeko Nagusien Kontseiluaren berrantolaketari buruz hitz egitera etorri da, Tolosara, Maite Etxaniz Gizarte Politikako foru diputatua.

Tolosaldeko Nagusien Kontseiluak berak eskatuta burutu dute

bilera, izan ere, Gizarte Politikako departamentuak beste modu batera lan egingo du hemendik aurrera: lurraldetik eskualdeetara, eta eskualdeetatik herrietara begira jarriko dira, lekuan lekuko arazo eta beharrei hobeto erantzun ahal izateko. Modu honetara, «egitura piramidala» lortuko dute, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidego osora hala bideratuta.

Bosgarren bilera honetan, besteak beste, gizarte zerbitzuen mapa nondik nora doan eta nola aldatu den aztertu zuten, eta baita Nagusien Kontseiluak azken

urteotan izandako «aldaketa eta aurrerapausoak» aipatu ere.

Bide honetan, eskualdeko datuei eman diete lehentasuna, eta «Tolosa bataz bestekoaren gaineratik» dagoela nabarmendu zuen Maite Etxanizek, gizarte zerbitzuen eskaintzari dagokionez. «Alongegiko Uzturre Asistentzia Zentroan zerbitzu oso ona eskaintzen dute, eta orain osasun mentalari eskaintitako atala jarri berri dute, gainera», esan zuen.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburuetako bat da, hain zuzen ere, espezialitateak edo zerbitzu bereziak eskualdeko herrietara

ere zabaltzea, «hiriburuetan soilik ez zentralizatzeko».

Tolosako bileran, guztira, 30 bat lagun bildu dira, eta ondoko eragileek hartu dute parte: Tolosako Appetol, Tolosako Iturriaz elkartea, Tolosako Udala, Villabonako Udala, Tolosako Esperientzia Eskola, Irurako Jubilatuta Elkartea, Tolosako Beti Gazte elkartea, Tolosako Nagusilan, Berastegiko Udala, Berastegiko Gaztañondo Elkartea, Tolosako Arizpe elkartea, eta Donostiako Nagusilan.

### ↓ Zerbitzuak Tolosan

	Gipuzkoa	Tolosa
Egoitza plazak	%3,90	%4,30
Eguneko plazak	%1,30	%1,60
Etxeetako laguntza	%4,20	%5,10
Dirulaguntzak	%7,70	%9

## Seigarren postua lortu du 'Luze'-k, Leitzako finalaurrekoan

**I. Urkizu** Leitza

215 ikus-entzule eta sei bertsolari izan ziren larunbatean Leitzako zineman jokaturiko Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren finalaurrekoan.

Miel Mari Elosegi, *Luze* leitzarrrak, seigarren lekuan amaitu zuen saioa bere herrian ospaturiko finalaurrekoan; ez du beraz, finalerako aukerarik izango.

Saioan Estitxu Arozena lesakarrak bildu zuen puntuaziorik altuena, eta horri esker, apirilaren 9an Iruñean ospatuko duten finalerako txartela lortu zuen, zuzenean. Bigarren Xabier Terreros egin zuen, eta Ander Fuentes, *Iturrirrentzat* izan zen hirugarren postua. Laugarren eta bosgarren postuak, berriz, Iñigo Olaetxea eta Josu Sanjurjorentzat izan ziren, hurrenez hurren.

Iruñeko Labrit pilotalekuan izango da Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala, apirilaren 9an.

## Baskonia eta Maccabiren partida ikusteko irteera antolatu du TAKEk

**I. Urkizu** Tolosa


Hilaren 24an Gasteizko Caja Laboral Baskoniak Maccabi talde israeliarraren aurka jokatu du partida, Gasteizko Buesa Arenan. TAKEk irteera antolatu du hara joateko. 30 euroko prezioa izango du, eta sarreraz gain, salneurriaren barruan autobuseko bidaiaren kostua ere sartzen da. Joateko interesa duen edonork, [takesb@takesb.com](mailto:takesb@takesb.com) helbidera idatzi beharko du, edo 616 49 93 94 telefono zenbakira deitu.

## Lan poltsa

IRRIEN LAGUNAK Klubeko pertsonaiei bizitza emango dieten lagunak behar ditugu:

- Ekitaldietan, ikus-entzunezkoetan eta zuzeneko ikuskizunetan aritzeko.
- Natura, kultura, zientzia eta osasungintza lantzen duten pertsonaiek dira.
- Dena baloratuko da, baita antzerkian eta aktore lanetan ibili izana ere.

Bidali proposamenak martxoaren 31 baino lehen:  
[kudeaketa@irrienlagunak.com](mailto:kudeaketa@irrienlagunak.com)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Jone Lozano Miranda atxilotu duela esan du Frantziako Poliziak

Aresoarrari babesa adierazteko, atzo iluntzean elkarretaratzea egin zuten herrian

**Erredakzioa** Areso

Atzo goizean Frantziako Poliziak jakinarazi zuenez, ETAko kide dela esan zuen emakume bat atxilotu zuten. Polizi iturrien arabera «errepide kontrol batean geratu zituzten, Indren. Emakumea armaturik zegoen, eta berarekin batera zegoen gizonak ihes egitea lortu zuen». Poliziak azaldu zuenez, «auto barruan zihoazena ihes egiten saiatu ziren». Emakumea harrapatu zuten, eta honek, Jone Lozano Miranda zela esan omen zien, eta ETAko kidea dela. Iturriek ziotenez «pistola bat zerraman». Gizonak, ihes egitea lortu zuen, eta bere bila jarraitzen dute. Atzo iluntzean Areson elkarretaratzea egin zuten.

## Gaur, euskara heriotzara eramateko plangintzaz ariko da Izagirre

**Erredakzioa** Tolosa

Koldo Izagirre idazleak euskaren egoerari buruzko lan bikaina idatzi berri du: *Autopsiarako frogak. Artseniko aztarnak gure hizkuntzan*. Gure hizkuntza heriotzara eramateko plangintza kalkulatu eta eraginkorrez ari da. Gaia aintzat hartuta, Galtzaundi Euskara Taldeak hitzaldia antolatu du. Gaur, 19:30ean, Tolosako Kultur Etxean izango da Koldo Izagirreraren eskutik. Euskaltzale guztiak gonbidatuta daude.

# Jose Ariztimuño 'Aitzol'-en testuak Tolosako kaleetan aireratu dira

Aitzolen jaiotzaren 115. urteurrenaren arira, Ariztimuñoen jaiotetxeko atarian plaka bat jarri dute

**Eneritz Maiz** Tolosa

Ostiralean, hilaren 18an, 115 urte bete ziren Jose Ariztimuño *Aitzol* Tolosan jaio zela. Euskaraena ekimenaren baitan, 125 lagunetik gora aritu ziren Aitzolen testu zati ezberdinak irakurtzen. Banaka-banaka, Kultur etxetik pasa ziren guztiak: politika, kultura, kirola, hezkuntza, komunikabideak eta beste hainbat arloetako lagunak izan ziren. Testu guztiak, Tolosako kaleetan, bozgorailuen bidez entzuteko aukera izan zen. Ramon Labaienek izan zuen testuen irakurketari hasiera emateko ardura. Hiru orduz gabe aritu ziren irakurtzen.

Hainbat eragilek antolatu dute Euskaraena ekimena eta urteurrenaren lehen ekitaldia, Aitzolen jaiotetxean, Gorosabel kalean, bertan plaka jartzea izan zen. Besteren artean, bertan izan ziren udal ordezkariak, Aitzol Udala Euskaltegiokoak eta baita, Aitzol Azpiroz, Jose Ariztimuñoen il-



Tolosako Kultur etxetik, 125 lagunetik gora pasa ziren Aitzolen testu zatiak irakurriz. HITZA

ba txikia ere. Ondoren, txistularien laguntzarekin Kultur etxerako bidea egin zuten. Miren Azkarate Euskaltzainak ere ez zuen hutsik egin egun handian, eta Tolosan izan zen.

Hurrengo ekitaldia, ostiralean izango da Topic-en 20:30ean. Joseba Tapiaren kantaldia izango da, eta bere azken diska auzetuko du. Eta larunbatean, hilak 26, Tolosa Kantari, udal txistulari bandak lagunduta aterako da. Ondoren, kantu bazkaria egingo dute Oargi Elkarteak.

## Irudia ◊ Tolosa



## ZINTZOEN BASOA ERAIKIZ

Tolosako neska-mutilek larunbatean hamaika zuhaitzen landaketa egin zuten Elozegi parkean, eta kimu berriak eskainiko zaizkio Zintzoen basoari. Aitzol eta Euskal Pizkundearen, gizon-emakume haien txokoa izango da. Arbola, bizia eta geroa, bizitzaren zikloa eta belaunaldien arteko uztardura adierazi nahi du Zintzoen basoak. Eta Euskal Pizkundeak hor egingo du habia. I.GARCIA



Gorosabel kaleko 12. atarian jarri dute plaka. HITZA

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Taberna.** Tolosan taberna bat alokatzen dute. Lizentzia badu eta erreformatu beharra dago. Interesatuak deitu 619 48 86 47 telefono zenbakira.

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Zure lehen etxebizitza merkea eta polita izateko aukera duzu Iruran: 60 me-

tro karratu eta ganbara. Interesatuak deitu, 653 72 92 46 telefonora.

■ **Etxebizitza.** Jakan etxebizitza salgai. Aukera paregabea. Erdigunean apartamendu guztiz hornitua. Garage eta trastelekuarekin. Deitu 667 49 25 57 telefono zenbakira.

■ **Garajea.** Ibarren garaje itxia salgai, Idoiaga plazan. Kotxe

txikia, motorra,... edo trasteleku bezela oso egokia. Prezio interesgarria. Deitu: 657 70 39 53.

### GARBIKETA

■ **Auxe Garbitasunak.** Alfondrak, bulegoak, etxeak, eta antzekoak garbitzeko prest gaudete. Interesa dutenek dei dezatela inongo konpromisorik gabe 638 94 46 04ra (Gurutze).

## ZORROZTU ZURE ETORKIZUNA

**Goierri Eskola**  
Ate Irekien Jardunaldia  
Martxoak 26, Larunbata, 10:30ean

Gure Batxilergoko eskeintza akademikoa ezagutu.

www.zorroztuzureetorkizuna.com  
Granja auzoa, z/g • ORDIZIA • 943 880 062

**Goierri** ●●●  
eskola

**Irudia** o Tolosa



**ORRI-MAMIAK DASTATZEN**

Tolosako Azokak • Kilometro 0 ekimenaren barruan, larunbatean, Zerkausian, Astelenako Pello Doyhartzabalek saltsa berdean egindako urdialzapikoz betetako orri-mamiak prestatu zituen.<sup>11111</sup>


**Irudia** o Tolosa



**HEGO AMERIKARA BEGIRA**

Hego Amerikako merkatuek Tolosaldeko enpresari eskaintzen dizkieten aukeren berri emateko jardunaldia egin zuten Azkoitian Leñi Berrik eta Isurgi Lambert-Ezaguztza Gumeak antolatuta.<sup>11111</sup>

**Irudia** o Tolosa



**SEIEHUN INFORMATIKA ZALE USABALEN**

Gipuzkoa Encounter informatika topaketa bostgarren aldiz egin dute Usabalen, eta bertan 600 informatika zale bildu ziren. Hiru egunetengandik abiatzen, bideo jokoetan jolasten, artxiboak elkarbanatzen... aritu dira. Txapelketak ere egin dituzte, tartean arte digitalarena.<sup>11111</sup>

**Irudia** o Tolosa



**ZUHAITZ GEHIAGO ZUMALAKARREGIN**

Larunbatean Zuhaitz Eguna ospatu zuten Tolosan. Herriko berdeguneak ezagutzeko bisita gidatuak antolatu zituzten, eta hiru ikasteko bestdako ikasleek ginkana egin zuten. Eguneko ekitaldiel bukaera emateko, Zumalakamagi pasealekuan zuhaitzak landatu zituzten.<sup>11111</sup>

**Irudia** o Tolosa



**COLORINEN UNIBERTSOA IKUSGAI**

Txotxongiloaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten Topic-ek larunbatean. Txotxongilo talde batekin hasi zituzten egun honetako ekitaldiak. Aratzaldian Julia Otxoa olerkariak Txotxongiloaren Eguneko testua irakurri zuen, eta horren ondoren Paperezko istorioak obra ikusi ahal izan zen. Ondoren, Colorin eta bere txotxongiloak erakutsen ta inaguratu zuten. Bertan izan ziren, besteak beste, Colorin pertsonaia bere sortzaile Conchita Momefi, Blanca Urgell Kultur sailburua eta Jokin Bildarratz alkatea.<sup>11111</sup>

**Irudia** o Zizurkil



**JOSELU GERESTA GOGORATUZ**

Joselu Geresta "Tolo ten heriotzaren 12. urteurrena bete da. Hainbat ekitaldi egin zituzten urteurrenaren harira. Igandean Urkamendi mendian elkaru ziren, batzuk mendira marxa eginaz, eta besteak kalejira. Ondoren, herriko plazan ekitaldia egin zuten. Bertsolarien eta dantzarien saioak izan ziren, eta ondoren lore eskaintza egin zuten. Genestaren liburuak abesti bati kantaatu zuten. Amalzteko, gena zikinarekin inguruko hiritzaldia izan zen.<sup>11111</sup>

**Irudia** o Amasa-Villabona



**KATEA-ETXEA GAZTELEKUA ERABILTZEN HASI DIRA GAZTEAK**

Amasa-Villabonako gaztelekua, Katea-Etxeari, bizi ematen hasi dira gazteak asteburu honetan. Ostiral arratsaldean inaugurazio ofiziala egin ondoren (ezkerreko argazkia), larunbat goizean gaztelekua ezagutze-ko aukera izan zuten herritarrek. Egun horretan, arratsaldean, gaztelekua erabilliko duten gazteek egin zuten inaugurazio ekitaldia. 60 nerabe inguru pasatu ziren bertatik. Erakina ezagutuz gain, merienda egin zuten, eta ping-pongo eta mahai-futboleko txapelketak jokatu zituzten. Astelehena ezik, egunero irekita izango da Katea-Etxea. Bertan egiten diren ekimenen berri [www.kateaeetxea.net](http://www.kateaeetxea.net) helbidean jaso daiteke.<sup>11111</sup>

**Irudia** o Altxo



**Irudia** o Berastegi



**LOKALAK INAUGURATU DITUZTE**

Altxoko lokai baldintzirik eta frontoi atzeko aldagelak inaguratu zituzten igandeko eguerdian. Herriarekin gain, ekitaldian izan ziren, besteak beste, Rafa Urribarren Landa Garapeneko diputatua eta Inaki Murua alkatea.<sup>11111</sup>

**GAZTE FESTAK, MUSIKAZ BLAI**

Urpelele elkartek antolatu dituen Gazte Fectetan, arrakasta izan zuten ostiral zein larunbat gauetan antolatu zituzten kontzertuek. Bakarrizketa saioa, afaria, mus txapelketa, sagardo dastaketa (argazkian) eta toka txapelketa egin zituzten.<sup>11111</sup>

**harpidedun izateak badu saria**

**zozketa**

**1 Dastatze menua**

**Iriarte Jate txean**  
2 laguntzako dastatze menua

Jose Mari Gokoxtekoa, 34 beheko Berrubi • Tel.: 943-68 30 78

**2 Bazkaria**

**Sarasola sagardotegian**  
2 laguntzako bazkaria

Asteasu • 943-69 02 63

**3 Elastikoak**

**TTAK**  
2 elastiko

Neska M  
Mutia M

**4 Aquariuma**

**Donostiako Aquariumean**  
3 laguntzako bina sarrera

[www.aquariums.com](http://www.aquariums.com)

Parte hartzeko delitua edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** (harpidedunen kodea, izena, herria, eta zereskaitzentan parte hartu nahi duzun garbi adierazi) Aho horietako sarrera, astelehen eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara, Sardinak ostekoan inguruetan dago.

**2=1 kupoa**

MOZTU eta erabili zure harpidedun karretarekin batera\*

**DENAK TABERNA**  
Igaralde 4 • Tolosa • Tel.: 943 671 627

**2 = 1 kupoa ogitartekoetan**

Astelehenetik ostegunera

**Ogitartekoak 2=1**  
Batak ordaindu eta bigarrena gogor doan izen-zerbitzuan

HURBERDIN KODEA .....

ESKURATUWA EGUNA .....

Aurkezten dena: 2011-03-22

ESKURTZEKO LEKUA: HILABETE

**harpidedunak**  
**TXOKOA hitza**



**Kirolak**

**↓ Emaizak**

**PILOTA**

**BINAKAKO TXAPELKETA**  
**Lehen maila**  
 Gonzalez-Laskurain 17  
 Xala-Barriola 22

**Bigarren maila**

**Olaetxea-Albisu** 22  
**Idoate-Galarza** 19

**SASKIBALOA**

**LEHEN MAILA**

**Hamaikagarren jardunaldia**  
 ATE La Salle 68  
**Take Bidebide Ibiza** 65

**Sailkapena**  
 1. Viajes Marfil (9-2)  
 2. Mondragon Unibertsitatea (9-2).  
 7. Bidebide Ibiza (6-5)

**ATLETISMOA**

**LARRAUL-ERNO-LARRAUL**

**Emakumezkoak**  
 1. Nerea Amilibia (Zizurkil)  
**Gizonezkoak**  
 1. Oier Ariznabarreta  
 2. Hassan Ait Chau (Villabona)

**SOKATIRA**

**EUSKAL HERRIKO**

**TXAPELKETA**  
**Emakumezkoak, 500 kilotan**  
 1. Sakana  
 2. Badaiotz  
 3. Ibarra

**ARETO FUTBOLA**

**NAZIONAL A MAILA**

**23. jardunaldia**  
**Lauburu Ibarra** 5  
 Castro Urdiales 4  
**Sailkapena**  
 1. Zierbana (55 puntu)  
 2. Lauburu Ibarra (41 p)  
 3. Burgos (41 p)

**NAZIONAL B MAILA**

**23. jardunaldia**  
**Irish Pub Sheperd's** 6  
**Laskorain Ikastola** 3

M Petronor 9  
**Transportes Lakunza Sailkapena** 2

1. Concepto-Createch (61 p.)  
**2. Laskorain Ikastola (50 p.)**  
**10. Irish Pub Sheperd's (27 p.)**  
**12. Transportes Lakunza (25 p.)**

**FUTBOLA**

**ERREGIONAL OHOREZKO**

**MAILA**

**26. jardunaldia**  
 Ordizia 1  
**Tolosa** 2

**Sailkapena**

1. Real Union (58 puntu)  
 2. Hernani (58 puntu)  
 3. Pasajes (56 puntu)  
**8. Tolosa (39 puntu)**

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

**24. jardunaldia**  
**Tolosa 'B'** 2  
 Lagun Onak 2  
 Aretxabaleta B 1  
**Intxurre** 1

**Sailkapena**

1. Mutriku (47 puntu)  
 2. Elgoibar (47 p.)  
 3. Uroloa (47 p.)  
**8. Tolosa B (34 puntu)**  
**12. Intxurre (26 puntu)**



Amezketako Zazpi Iturri elkarteko pilotariak herenegun Tolosako Beotibar pilotalekuan. SARA GOMEZ

# Zazpi Iturriko pilotariak Berria Txapelketaren finalera iritsi dira

Finalerdietan Irurtzun utzi dute kanpoan, eta finalean Uharte Iruñekoen aurka jokatu dute

**Asier Imaz** Amezketak

Marrazki bizidunak ikusten egongo balira bezala, Beotibar pilotalekuan gozatzen egon ziren pilotazaleak herenegun. Protagonistak, aldiz, kadeteak izan ziren. Xalton Zabala, Zazpi Iturriko arduraduna, txundituta gelditu zen ikuskizunarekin: «Arratsaldeko partida onena izan zen. Gainontzeko pilotariak badute zer penintsatu, txikiek nola jokatu zuten ikusita».

Lau pilotariet norgehiagoka

gogorra jokatu zuten. «huts gutxi eta tanto askokoa». Emaizak, ordea, aurkakoa erakusten du. Amezketako elkarteko Altuna-Irribarriak 22-10 irabazi zieten Irurtzungoei, eta ondorioz, Berria Txapelketaren finalerdietako lehen puntua etxean gelditu zen.

Jubeniletan Jaka izan zen protagonistak, bai behintzat partida hasi aurretik. Lizartzarra aste guztian zehar kili-kolo ibili zen, zaintiratu bat medio. Asteburuan, ordea, bi partida jokatzeko gai izan zen. Zabalaren esanetan, «mirari moduko bat» izan zen gaztearen errekupeazioa. Igan-dea iritsi zenean, jubenilen partida hasi orduko erabakita gelditu zen. Irurtzungo bikoteak pilota asko galdu zituen eta Gailurralde-Jaka erraz iritsi ziren 22ra.

Aurkariak bederatziaren gelditu ziren. Gauzak horrela, Amezketako Zazpi Iturri Berria Txapelketako finalean aurkitzen zen, nagusien partidako emaitzaren zain egon beharrik gabe. Azken hauek, Arzelus-Garmendiak, 22-18 galdu zuten.

**Finala hilaren 25ean**

Berria Txapelketaren finala ostiral honetan jokatu da Hernanin, 19:00etatik aurrera. Zazpi Iturrikoek hiru partida zail izango dituzte aurrean, Uharte Iruñeko pilotariet bikote sendoak osatzen baitituzte kadeteetan, jubeniletan eta nagusietan. Nafarrek finalerdietan Burlata kaleratu dute. Xalton Zabalaren ustez, gako lehen bi partidetan egongo da, «eurek nagusietan oso bikote indartsua dutelako».

**Hilberriak**

**maizpide**  
**EDITA PEREZ GARCIA**  
 (Ramon Lizarraga gure lankidearen ama)  
 MAIZPIDE euskaltegiok bat egiten dugu familiarekin une latz hauetan  
**LAZKAO, 2011ko martxoaren 22a**

**JEXUXA JAUREGI ARRATIBEL**  
 (Andres Salegiren alarguna)  
*Lore bat bezala joan zara udaberria heltzean gure bihotzean izango zera bizi geran artean.*  
**ENEKO ETA LEIRE, MADDI ETA IBAI**  
**ITSASONDO, 2011ko martxoaren 22a**

**JEXUXA JAUREGI ARRATIBEL**  
 (Andres Salegiren alarguna)  
 Herenegun hil zen, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
 - Goian bego -  
 Seme-alabak: Josune eta Andoni Eskisabel, Amaia eta Bittor Alberdi; bilobak: Eneko eta Leire, Maddi eta Ibai; zainzaileak: Lucia; ezkon anai-arrebak: Ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.  
 Haren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitetzela GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parrokia etizan, gorpua bertan dela egingo den hileta elizkizunera. Aldez aurretik mila esker.  
**ITSASONDO, 2011ko martxoaren 22a**  
**Helbidea:** Nagusia, 28-1.  
**Oharra:** Gorpua Beasaingo GOIERRI BEILATOKIAN egongo da.

**HILETAREN BALIOA**  
 Txina Inperiala  
 Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.  
 Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.  
**FUNERARIA VASCONGADA**  
 EHORZKETAK  
**902 402 900**  
 www.funerariavascongada.com

## Armando Rocak Europako Txapelketa irabazi du 60 metrotan

Beteranoen atletismo txapelketa jokatu da Belgikan; Andu Martínez de Rituerto ere bertan egon da

**Erredakzioa** Tolosa

Iragan astean, 16tik 20ra, Ganten (Belgika) Beteranoen atletismo-ko Europako txapelketa jokatu zen. Bertan, Tolosa CFeko bi atleta izan ziren, eta hauek dira lortutako emaitzak: Armando Roca 75-79 urteko kategorian lehenengo postuan gelditu zen 60 metroko lasterketan, 8 segundo 88 ehuneko markarekin. Bestalde,



Armando Roca. HITZA

Andu Martínez de Rituerto, 40-45 urteko kategorian, 4. gelditu zen altuera jauzian; 1'83 metroko jauzi batekin.

## Laskorainek galdu egin du Villabonako Egintzaren aurka

**Erredakzioa** Tolosa

San Jose egunez jokatu zuen aurtengo neguko azken partida Laskorainek Villabonako Egintza talde gaztearen aurka. Saillkapenean bi taldeen artean alde handia egon arren, azken postuetako zuloatik irteteko etxekoan grina nagusitu zen ikastolakoaren intentsitate ahularen aurrean.

Atsedenaldian, 2-0, maldan gora eta oso iluna zuen partida ikastolako taldeak, gerorako utzitako lanak korrika eta presaka egin beharra tokatzen baitzitzaion. Aurrera pausu bat eman eta defentsa lerroa aurkariaren ateraino eraman zuen taldeak.

Taktika honek estu hartu zi-

tuen etxekoak bigarren zatiko lehen minutuetan, Telleriak egindako golarekin aldeak murriztu ostean aukera garbiak izan baitzuten taldeak partida berdintzeko. Aurkariaren atezainaren lan onak eta ikastolakoaren punteria kamutsak, ordea, markagailuan aurretik mantendu zuten Egintza beste bi kontraerasotan 4-leko abantaila garbia lortu arte.

Azken minutuetan atezain-jokalaria erabili zuen Laskorainek baina Gilek sartutako ezkerkada bikain bati eta Balerdiren beste pasa eder beten ondoren, Jonikok egindako golari, euren kantzatik egindako beste bi golekina erantzun ziren Villabonako taldeak. Azkenean 6-3 nagusi etxekoak.

## Saralegik ezin izan du lortu Adania Aizkolari Sariko lehen postua

Mikel Zabaletak oso lan txukuna egin zuen, eta lehen postua lortu zuen lanak 6 minutu eta 6 segundotan amaituta

**Maier Ugartemendia** Leitza

Jendea gustura gelditu zen, Adania Aizkolari Sariaren finalean ikusitakoarekin. Ruben Saralegik ez zuen bere egunik onena izan. Mikel Zabaletak, aldiz, oso itxura ona eskaini zuen, eta bera izan zen 14 urte azpikoetan garairi.

Adania Aizkolari Saria, Gabriel eta Mieltxo Saralegik antolatu zuten aizkolari gazteak martxan egoteko asmoz. Finala, igandean jokatu zen Leitza, eta ikusmin handia sortu zuen, 350 pertsona inguru hurbildu baitziren Amazabal pilotalekura. Gabriel Saralegi antolatzailearen hitzetan «jende mordo inguratu zen».

23 urtez azpikoan Oihan Larretxea izan zen nagusi. Lehenengo bi saioetan, lehia estuagoa izan zen. Saio hauetan «berdintsu ibili ziren denak» Saralegiren iritziz. 3. saioan, 45 ontzakoa ebaki behar izan zuten zutik. Proba honetan Oihan Larretxeak, Saralegiri 9 segundo atera zizkion, Mugerza II.ari 14 segundo eta Mugerza III.ari 30 segundo.

Azkenean, Oihan Larretxeak 13 minutu eta 8 segundo behar izan zituen lanak amaitzeko. Bigarren Mugerza II.a izan zen, 13 minutu eta 34 segundorekin. Ondoren, Saralegik amaitu zituen lanak 15 minutu eta 15 segundotan. Eta, Mugerza III.ak 15 minutu eta 55 segundotan bukatu zi-



Saralegi, igandeko saioan, ontzakoa zutik ebakitzen. SARA GOMEZ

tuen lanak. Oihan Larretxea «oso ondo» aritu zen Saralegiren ustez, eta beti bezala bere maila eman zuen. «Ebakitzen zuten eta zintzo ibili zen», eta horrek beste-ekiko tartea handitzea eragin zuen. Mugerza II.ak nahiko gertu jarraitu zion, baina Saralegi eta Mugerza III.a pattalxeago ibili ziren.

Ruben Saralegi, leitzararak, ez zuen bere egunik onena izan. Hasieran nahiko poliki ibili bazen ere, gero «nahiko pattal» aritu zen. Lehenengo saioetan «maila nahiko ona erakutsi zuen», eta mozketan «ongi ibili zen», baina bestela «motel xamar» zegoen.

**Zabaleta goraka**

23 urte azpiko txapela ez zen jokoa izan zen txapela bakarra. 19 urtez azpikoan Eloi Kortxero eta Unai Otaño aritu ziren. Kortxerok 8 minutu eta 6 segundo behar izan zituen lanak amaitzeko. Otaño berriz, 8 minutu eta 38 segundo behar izan zituen. Biek maila ona erakutsi zuten.

14 urtez azpikoan artean Mikel Zabaleta leitzarara izan zen nagusi. Saio bikaina egin ondoren, 6 minutu eta 6 segundotan amaitu zituen lan guztiak. Bigarren, Iker Vicentek egin zuen, baina Zabaletak baino 50 segundo gehiago behar izan zituen. Julen Larreak, denbora gehiago behar izan zuen bere lanak amaitzeko: 8 minutu eta 38 segundo, zehazki.

Mikel Zabaletak oso itxura ona eman zuen. Saralegiren ustez, «goraka heldu da, olatu bat bezalaxe». Beste biak ere maila ona eman zuten arren, Zabaletak lan borobila egin zuen. Badirudi goraka doala gaztea.

Gauzak honela, jendea oso gustura gelditu zen. «Txalo zaparrada handia izan zen bukaerakoan», Saralegiren ustez.

Gazteak lanean ikusteak freskura berri bat ematen du. Jendeak, gazteak eta pertsona berriak ikusi nahi ditu. Horregatik, ikusleak «gustura» joan ziren, eta «ez ziren damutu» Adania Aizkolari Saria ikustera joan izanaz.

## Parte-hartze handia izan da Larraul-Ernio-Larraulen

Oier Ariznabarreta, mutiletan, eta Nerea Amilibia, nesketan, izan ziren helmugara iristen lehenak

**M.U.** Larraul

Larraulgo Udalak eta zebait herriarrek lehenengo aldiz antolatutako Larraul-Ernio-Larraul lasterketan 170 pertsona inguruk parte hartu zuten. Eguraldia lagun izan zuten ibilaldian zehar,

eta emaitzarekin gustura geratu dira antolatzaileak. Oier Ariznabarreta izan zen helmugara, lehena, iritsi zen korrikalaria. Bigarren Hassan Ait Chaou, villabonatarra izan zen; eta hirugarren postuan gelditu zen, Jon Iturralde korrikalaria.

Nesken artean, Nerea Amilibia zizurkildarra izan zen azkarrena. Leire Elosegik eta Eva Pelaezek lortu zituzten bigarren eta hirugarren postuak, hurrenez hurren. Helmugara iritsi zen lehen herriar, berriz, Jon Urkaregi izan zen.



170 pertsona inguru abiatu ziren Larraulgo plazatik, Enriorabidean. SARA GOMEZ



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	15°
HOTZENA	10°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**  
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza,  
Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Irudia Inauterietako Argazki Lehiaketa



## INDIAR TXIKIAK GARAILE

Bukatu da Inauterietako Argazki Lehiaketa eta Idoia Iburguren irabazi du *Bakearen pipa...*? bezala izenpetutako argazkiari esker. Iburguren Tolosako Denak taberna lau pertsonentzako afaria eskuratu du, zorionak! TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK, dena den, eskerrik eman nahi dizkie Inauterietako irudiak bidali dituzten harpidedun guztiei. Argazki asko jaso ditugu eta jai berezi hauetako irudi tipikoez gain, lan bitxi eta interesgarriak ere bidali dituzte, eskerriskasko! u.

### Agenda

#### DEIALDIK

- **Tolosa.** Tolosa&Co merkatarien elkarteak bilera egingo du gaur, 15:00etan kultur etxean, sortu nahi duten To&Co Visa txartelaren inguruan hitz egiteko.
- **Aduna.** Asvineneak afrikar dantzen ikastaro trinkoa antolatuko du apirilaren 2rako. Ikastaroak 20 euro balio du, baina bazkide direnek 15 euro ordaindu beharko dute. Tailerra Ainhoa Agirrezabalak emango du, eta perkusioa zuzenean joko dute. Izena [www.asvinenea.com](http://www.asvinenea.com) webgunean edo 665 738 081 telefonora deituta eman daiteke.
- **Aiztondo.** Aiztondo Mankomunitateak Artziniegara joateko irteera antolatuko du martxoaren 29rako.

- **Leitza.** Oialde Elkartearen bazkide berriak sartzeko epea apirilaren 10ean bukatuko da. Izena emateko deitu 676 29 79 80 (Amaia) telefonora.
- **Ibarra.** Txontxo udal ludotekak begiraleak behar ditu udarako. Eskaera egiteko derrigorrezkoa da begirale titulua eta EGA izatea. Ibarrek lehentasuna izango dute. Curriculumak [ibarra@ikastola.net](mailto:ibarra@ikastola.net)-era bidali behar dira '2011ko begiraleak' gaia zehaztuz. Apirilaren 8a da eskaerak egiteko azken eguna.
- **Tolosa.** OHOeko lehenengo promozioiko 8. maila Jesusen Alaben ikastetxean egin zutenek (1974-1975) maiatzaren

14an ikaskideen bazkaria izango dute. Bazkaria Bide Bide jantxan izango da. Izena apirilaren 30a baino lehen eman behar da, eta 50 euro sartu 2101 008119 0012775102 kontuan. Informazio gehiagorako eta izena emateko deitu 649 16 30 53 telefono zenbakira.

### Farmaziak

#### GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 6736 49.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

### Agurrak



#### Urte askoan!

**Antoni Arrubarrena Sarasola (Lizartza).**

Pasa den igandean 92 urte bete zituen. Zorionak eta muxu asko seme-alaba, biloba eta birbiloben partez.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●● **agurrak**



HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** pareatu du

Euskaraenea 2011ren baitan **Joseba Tapiaren kontzertua**


Martxoak 25 • Ostirala 20:30ean • Tolosako Topic-en



HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** pareatu du

**Bertso afaria**

Martxoak 25 • Ostirala • 21:00etan Villabonako Iririntzi Elkartearen



HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** pareatu du

**Quebec-eko Nicolas Pellerin et le Grands Hurlleurs**

taldearen kontzertua

Martxoak 27 • Igandea • 19:00etan Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean

